

JOSE ARANA PATRONATUA FUNDAZIOARI DIRU LAGUNTZA EMATEKO BALDINTZAK
ARAUTZEN DITUEN HITZARMENA

ESKORIATZAKO UDALA

ETA

"ESKORIATZAKO JOSE ARANA PATRONATUKO FUNDAZIOA"

ESKUfe0ea5ba-4751-498e-bf8a-ee44ec0705a2



BILDUTAKOAK

ALDE BATETIK, Edorta Zubizarreta Alegria, Eskoriatzako Udaleko alkate-udalburua.

ETA, BESTETIK, Aitor Zubizarreta Alegria jauna, 16233639-D NANA duena, Jose Arana Patronatuaren Fundazioko lehendakaria,

PARTE HARTZEN DUTE

Edorta Zubizarreta Alegria jaunak ESKORIATZAKO UDALAREN izenean eta ordezkartzen.

JOSE ARANA PATRONATUAREN FUNDAZIOAREN izenean (helbidea: Gastañadui Kalea 24, 20540 Eskoriatza; IFK: G20177614), Aitor Zubizarreta jauna, adinez nagusia eta 16233639-D NAN duena, behar bezala ordezkartzen duena.

Alde biek kontratu hau egiteko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta honako hau adierazten dute.

ADIERAZPENA

1.- Eskoriatzako egungo Jose Arana Patronatuko Fundazioa, hainbat izenekin denboran zehar, gizarte lan garrantzitsua egiten ari da orain dela 100 urte baino gehiagotik Eskoriatzan. Bere azken estatutuen arabera, fundazio honen helburu nagusia da adinagatik, egoera ekonomikoarengatik, familia arazoengatik edo bestelakoengatik fundazioak ematen dituen zerbitzuen beharra duten pertsonen laguntzea. Beste modu batera esanda, gaur egun fundazioak ostatu alternatiboa eskaintzen die, inolako irabazi asmorik gabe, zenbait gorabeherengatik beraien etxeetan bizitzen jarraitu ezin duten edo jarraitzerik nahi ez duten adineko pertsonen.

2.- Eskoriatzako Udalak, bereziki garrantzitsutzat jotzen du, eskoriatzarren ongizaterako, fundazioak bere jarduerarekin jarraitzea. Ezinezkoa da alde batera lagatzea bere jardueraren interes publikoa eta soziala.

3.- Jarduerarekin egungo eraikinean jarraitu ahal izateko, hainbat fasetan egin ditu 2013ko ekainean egindako "Jose Arana Zaharren Egoitza 41/98 Dekretura egokitzea" proiektuan jasotako obrak.

4.- Obra horiek finantzatu ahal izateko, laguntza publiko eta pribatuetara jotzeaz gain, mailegu bana eskatu behar izan zuen Kutxabank eta Sabadell bankuetan.

5.- 2024-06-11n eskatuta zuten kutxako mailegua kitatu egin dute, eta Sabadelli eskatu diote mailegu berri bat, 150.000 €-koa, eta horietatik 37.237 €, kutxako mailegua kitatzeko erabili



den kopurua, José Arana Zaharren egoitza 41/98 Dekretura egokitzeko erabiltzen jarraituko dute.

6.- Fundazioa momentu zailak igarotzen ari da eta ezin du mailegu horrek eragindako zama finantzarioa diru laguntzarik gabe finantzatu.

7.- Diru-laguntzei buruzko izaera orokorreko azaroaren 17ko 38/2003 legearen 22. artikulua diru-laguntza zuzenak jasotzeko aukerak aipatzen ditu, eta besteak beste, udal erakundeen aurrekontuetan nominatiboki aurreikusita egon behar dutela eta hitzarmenen eta laguntzen araudiaren arabera eman behar direla zehazten du.

8.- Eskoriatzako Udalaren 2024ko ekitaldiko udal aurrekontuan, 8.000 €-ko diru laguntza izenduna jasota dago Jose Arana Patronatuaren Fundazioaren alde.

9.- Dokumentu hau sinatu aurretik, Jose Arana Patronatuko Fundazioko ordezkariak egiaztatu du Fundazioak egunean dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta aitortzen du hitzarmen hau sinatuta ez dagoela Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean eta bere Araudian aurreikusitako zor arrazoirik aldeztu aurretik diru laguntza ordaintzea galarazten duenik.

Horiek horrela, eta alde bietan jakitun izanik Udalaren diru laguntzarik gabe Fundazioak ezingo lukeela jarraitu bere jarduerarekin eta Eskoriatzako herria oinarritzko zerbitzu sozial garrantzitsu bat gabe geldituko litzatekeela, Eskoriatzako Udalak eta Jose Arana Patronatuko Fundazioak hitzarmen hau formalizatzen dute ondorengo baldintzen arabera:

BALDINTZAK

Lehena.- Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmen honen helburua da 2025ko ekitaldiko udal aurrekontuan Jose Arana Patronatuko Fundazioaren alde dagoen diru laguntza izenduna antolatzea.

Diru laguntza Fundazioak SABADELL entitatearekin kontratatu berri duen ondorengo maileguaren amortizazioaren eta interesen kostua finantzatzeko erabiliko da:

Maileguaren data: 2024-06-24

- ZENBAKIA: 807825795214
- EMANDAKO MAILEGUA: 150.000 euro, horietatik 37.237 € José Arana Zaharren egoitza 41/98 Dekretura egokitzeko.
- AMORTIZATZEKO GELDITZEN DENA: 138.716,30 €

Bigarrena.- Eskoriatzako Udalak hartzen duen konpromisoa.

Aurreko baldintzaren ondorioetarako, Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du Jose Arana Patronatuko Fundazioari gehienez ere 8.000 euroko diru laguntza emateko 0300.471.231.91.01 2026 aurrekontu aplikazioen kargura.



Hirugarrena.- Diru laguntzaren erabilera.

Diru laguntza bakarrik lehenengo baldintzan aurreikusitako helburuetarako erabili ahal izango da; hau da, bertan aipatzen den prestamoaren amortizazioa finantzatzeko.

Laugarrena.- Jose Arana Patronatuaren Fundazioko betebeharrak.

Jose Arana Patronatuaren Fundazioak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean izatea hitzarmena sinatu baino lehen eta hitzarmenaren indarraldiak dirauen bitartean. Horretarako, hitzarmen hau sinatzearekin, Gipuzkoako Foru Aldundian, Gizarte Segurantzaren edo eskuduntzak dituen beste erakunde edo administrazio publikoren batean dagozkion ziurtagiriak telematikoki lortzeko baimena ematen zaio, berariaz, Eskoriatzako Udalari.
2. Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu baditu, Udalari jakinaraztea. Laguntza horien berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena, eta edozelan ere, diru-funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
3. Diru-laguntzen helburua fiskalizatzeko lanetan Udalak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako edozein informazio eman beharko du.
4. Eman den helbururako erabiltzea diru laguntza, ez beste ezertarako.
5. Erakundeak Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan aurkeztu beharko du dokumentazioa, diru laguntzaren onuradun izan eta kobratzeko eskubidea izateko.

Bostgarrena.- Beste laguntza batzuekin pilatzeko aukera eta finantzazio mugak.

Emandako diru laguntza bateragarria izango da erakunde publikoek edota pribatuak helburu bererako emandako beste edozein laguntzarekin, baina, inolaz ere ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta horrelakorik balego, emandako eta ordaindutako diru laguntza murriztuko da diruz lagundutako jardueraren defizit mugara arte.

Seigarrena.- Diru laguntza ordaintzeko epeak.

Diru laguntza modu honetara ordainduko da:

- % 60a hitzarmen hau sinatu ondoren.

Gainerako % 40a ondorengo dokumentazioa aurkeztutakoan ordainduko da:

- Iraileko mailegu kuotaren ordainagiria



Zazpigarrena.- Emandako diru laguntzak zuritzeko epeak.

Dagokion zuriketa aurkezteko 30 eguneko epea izango da diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik kontatzen hasita, eta edozein modutan, 2025eko urriaren 30ea baino lehen egin beharko da.

Zortzigarrena.- Hitzarmenaren indarraldia.

Lankidetza hitzarmen honek sinatzen den egunetik izango du eragina, eta 2025eko abenduaren 31era arte egongo da indarrean.

Dena den, sinatzaileek hitzarmena bertan behera uzteko aukera izango dute beste aldeari idatzizko salaketa aurkeztuta. Hitzarmenean jasotako erabakiak ez betetzeagatik egingo da salaketa.

Bederatzigarrena.- Jarraipen batzordea.

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen batzordea eratzea. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du batzordeak eta orokorrean etorkizunean gertatu litezkeen auziaz arduratuko da.

Batzorde horretako kide izango dira:

- Udalaren aldetik: Gizarte langilea eta gizarte zerbitzuetako zinegotzia edo berak eskuordetutako pertsona.
- Jose Arana Patronatuaren Fundazioaren aldetik: Jose Arana Patronatuko Fundazioko Batzordeak adostuko du.

Hamargarrena.- Emandako diru laguntza argitaratzea.

Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ERAKUNDE ONURADUNARI emandako diru laguntza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hamaikagarrena.- Izaera, interpretazioa eta jurisdikzio eskuduna.

- 1) Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta bertako baldintzen interpretazioan sor daitezkeen zalantzak erabakitzeko honako hauekiko xedapenak aplikatuko dira:
 - Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
 - Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
 - Toki Araubidearen gainean indarrean dauden xedapenen Testu Bategina, apirilaren 8ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz onartua.



- Toki erakundeen ondasunei buruzko araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.
 - Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea.
 - Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzaldiko Errege Dekretua.
- 2) Hitzarmen hau aplikatzerakoan sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak argitzea, Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzailearen diktamena aurrez jaso ondoren, Alkatetzari dagokio.
- 3) Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeari aurreikusitako eskuduntza banaketaren arabera, administrazioarekiko auzi jurisdikzioko organoei dagokie hitzarmen honen ondorioz sor daitezkeen auziez arduratzea.

Eta, esandako guztiarekin ados daudela egiaztatzeko, alde biek hitzarmen hau sinatzen dute ondorio bakarrarekin, sinaduran adierazitako lekuan eta egunean.

ESKORIATZAKO UDALETIK

JOSE ARANA PATRONATUAREN FUNDAZIOETIK



EKS | CSV: ESKUfe0ea5ba-4751-498e-bf8a-eed4ec0705a2

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=03410>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=03410>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026GDIR0003-hitzarrena/hitzarrena ()